


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

USANDIZAGA 17



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1925

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azken biak atzeraemanak, 5. oineko gorputz zentrala izan ezik. Harlanduzko fatxada goi oinetan, erdiko baoetan elementu moldekatuak dituen hormigoizko begiratokia duena, eta behe oina jatorriz kareharri kuxinduz estalia. Proiektu komuna Usandizaga 19 eta Migel Imaz 8ekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oina, begiratoki gaineko galeria izan ezik, eta 6. goi oina.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotutakoak, behe oineko fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotutakoak barne.